

2. atala: FRANKISMOA

Euskararen Pizkunde prozesua erabat eten zuen frankismoak, debeku, jazarpen eta bazterketa-aldi bati hasiera emanez. Baina nolakoa eta zenbaterainokoa izan zen jazarpen hori? Zein zen frankismoaren helburua euskararekiko? Eta nola sortu eta zabaldu ziren zirrikituak euskararen loraldi berri bati ekin ahal izateko?

Euskal Herriko ahozko ondarea biltzen duen **Ahotsak** webgunean euskal hiztunek jasandako errepresioaren lekukotza ugari bildu dituzte eta horietako batzuk entzungo ditugu.



Kike, Bedaion elkartuko da **Lontxo Zubeldiarekin**. Tolosako landa-auzo horretan 1966an haur guztiak euskal elebakarrak ziren. Eskolan euskaraz hitz egiteagatik, ordea, Lontxok zigor gisa, ehunka aldiz idatzi behar izan zuen bere koadernoan “En la escuela no tengo que hablar vasco” esaldia. Ezaguna egin den kasu honetatik abiatuta, garaiko

euskararen jazarpena deskribatuko du.

Frankismoak, hasiera-hasieratik gogor kolpatu zuen euskara. Errepresio haren lekuko dugu Tolosako Plaza Zarra. 1936ko abuztuaren 11n, frankistek herria hartu eta berehala, udal-liburutegiko, eskoletako eta Ixaka Lopez Mendizabal euskaltzalearen inprimategiko liburu guztiak, tartean euskarazko asko, pilatu eta su eman zieten.

Jakin aldizkariaren zuzendari **Lorea Agirre** eta Jakin talde historikoko partaide **Paulo Agirrebaltzategiren** elkartuko da Kike. Azken honek azalduko digu zein zen frankismoaren helburua euskararekiko. *Jakin* aldizkaria frankismoan nola sortu zen eta zentsurarekin zer nolako arazoak izan zituen ere kontatuko du. Joanmari Torrealдай aldizkariaren zuzendari ohiak euskararen eta euskal kulturaren aurkako zentsura aztertu zuen eta hark ateratako ondorioak aletuko dituzte biek. Joanmarik planteatu ohi zuen galdera iradokitzaile batekin amaituko du Loreak elkarrizketa: *Frankismorik egon ez balitz, non egongo ote ginateke?*



Gazteek ba ote dakite nor zen Franco eta zer nolako jarrera izan zuen euskararekiko? Izarok horixe bera galdetuko die kalean, diktadorearen argazki xelebre bat erakutsiz.

Belaunaldien mahaian, **Iñaki Martínez de Luna** eta **Yasmine Khris Maansri** frankismoaren inguruko beren bizipenen edo ezagutzaren inguruan jardungo dira.

Frankismoak euskara esparru askotan debekatu zuen, batez ere lehen urteetan, eta hau frogatzen duten hamaika idatzi erakutsiko dira saioan: elizetan predikuak euskaraz egitea edo hilarrietan euskara erabiltzea. Haurrari kalean Yonchu deitzeagatik jarritako isunaren kasua ere aipatuko da. Baina, era guztietako negazionismoak sortu diren garai hauetan, frankismoak euskararen aurka egin zuenik ukatzen dutenak ere agertu dira. Horrelakoetan gertatu ohi den bezala, egia diren kasu jakin batzuetan oinarritzen dira, frankismoaren egia desitxuratzeko, esate baterako, Francoren aldeko euskarazko pankartak aipatuz.

Negazionista hauei zer erantzungo liekeen galdetuz hasiko dugu elkarrizketa **Andres Urrutia** euskaltzainburuarekin. Gerra ondoren Euskaltzaindia isilik egon zen, baina ez zen desagertu. Frankismoan Euskaltzaindia nola aritu zen, Azkue euskaltzainburuak jokatu zuen papera, eta erakundeak funtzionatzeko zituen oztopo handiak azalduko ditu, besteak beste. Baita, garai haietan euskara batua sortzea nola izan zen posible ere.



Frankismo barruan ere izan ziren euskararen aldeko ekimenak eta proposamenak bultzatu zituzten pertsonak. Horien artean bada bat, hamaika ertz izan, eta eztabaida askoren iturri izan dena: Miguel Javier Urmeneta. Haren seme **Asisko Urmenetak**, aitaren figura konplexu horretara hurbilduko gaitu: karrera militarra egin zuen, Dibisio Urdinean parte hartu zuen, Iruñeko alkate, Diputazioko presidenteorde izan zen... Baina, kargu horietatik euskararen aldeko hainbat neurri ere hartu zituen: euskaraz mintzo ziren haurrak saritu, ikastolak sorrera sustatu edo euskarazko aldizkariak sortu, adibidez.

Saioari amaiera emateko, Kike, **Josune Ariztondo** politikari ohiarekin eta **Xabier Amuriza** bertsolari eta idazlearekin elkartuko da. Biak oso ingurune euskaldunetan jaio ziren eta frankismoaren inguruko lehen sentipenak gogoratzeari ekingo diote. Gure hizkuntzak eta herriak nozitzen zuten zapalkuntzaren kontzientzia nola esnatu zitzaizen kontatuko digute eta frankismoaren amaierako mugimendu sozio-politikoaren lehen urratsak nolakoak izan ziren, eta nola bizi izan zituzten.

